

Euskararen jatorria

Jatorriberri – 2012-07-22

Dimako 7. Biltzara arrakastatsua izan da



Maiatzean egin genuen “Etnografia eta euskararen jatorriari buruzko 7. Biltzarrean gauza interesgarri asko entzuteko aukera izan genuen: Felix Zubiagak erritoren hasiera hizkuntzaren sorrerarekin nola lotu zuen, Barandiaranen “aitz” erroaren baliagarritasuna 10 pisuzko arrozoi entzun ondoren, Javier Goitiaren jatorriari buruzko teoria 1.400 erroetan oinarritua, etab.

Arratsaldean Baltzola koben bisita “mitologikoaren” ondoren, ETBk egindako euskararen jatorriari buruzko dokumentalaren gainean eta Luis Silgok Iruña Veleiako ostrakei esker Akitaniako hilarrietan dezifratu gabe dauden euskal hitzak argitzeko giltza dagoela entzun genuen.

Amaitzeko, omenaldi xumea egin zitzaion Sarkisian, Kapanaga eta Txillardegiri, jatorriaren edo Iruña Veleiaren gaian egindako lanagatik. Bertan Kapanagaren Lourdes arreba egon zen.

Ponentziak: <http://www.euskararenjatorria.eu/7biltzara.htm>

Elkartean partaide gehiago

Diman ia urtero biltzarrera etortzen diren batzuekin hitz egiteko aukera egon zen eta batzuk prest azaldu dira elkartean parte hartzeko.




Hori dela eta, ekainean egin genuen bilera 10 pertsona elkartu ginen ondorengo gaiak aztertzeko: azken biltzarraren balorazioa, datorren urtekoa non egin eta zein gaia landu, Iruña Veleiaren gaian zer egin datorren ikasturtean, etab.

Euskararen jatorriari buruzko hitzaldiak herrietan

Ekaineko bileran landu zen gaitako bat euskararen jatorriaren gaia gehiago zabaldu beharra izan zen eta, horretarako, herrietan, gai honi buruzko hitzaldiak eskaintzea proposatu zen.

Elkarteko Xabier, Leire, Aintzane eta Agurtza arduratu dira gai honetaz eta uda ondoren harremanetan jarriko gara kultur etxeekin eskaintza hau egiteko.

Liburuak



Antonio Arnáizek “El origen de los vascos y otros pueblos mediterráneos” berrargitaratu du, informazio osagarriarekin.

Felix Zubiagak “Amarekin topo” liburu berria ere egin du.

Tolosan pediatria gisa aritu J.M. Sansinenek orain 20 urte luze idatzitako liburua egon zen Diman salgai. Bertan “ur” erroa mundu mailako toponimian non aurkitu daitekeen aztertu zuen.



Arabako Iruña Argitzeko Batzordearen berripapera

2012-07-22

Euskararen Jatorria Elkarte



1.- Luis Nuñez gezurretan berriz: berak ez du San Joan komentua aurkitu

Ekainean Arabako Foru Aldundiak emandako prentsaurre batean Julio Nuñezek, besteak beste, San Joan komentuaren aztarna aurkitu dutela aipatu zuen, EHUko Ruiz Urrestarazuren eta Itziar Lamarain Kultura Diputatuaren aurrean.

Esan beharra dago “aurkikuntza” hori erabat gezurra dela, izan ere, San Joan komentuaren kokapen zehatza orain dela 300 urte jadanik ezaguna zen, garai horretan argitaratu zen eta behean ikus daitekeen marrazkiaren bidez.

Bestetik, indusketaz arduratzen zen aurreko enpresak, Eliseo Gilek zuzendutako Lurmenek, komentuaren kokapena ere zehaztuta eta mugatuta ere bazuen, etorkizunean leku horretan indusketa lan sakona egiteko asmoa zutelako.

Oraingoan ere, gezur honek, aurrekoek bezala, bide luzerik ez duela egingo espero dugu.



XVIII. mendeko irudia, komentuaren kokapena zehaztuta (Iturria: SOS Iruña Veleia)

2.- Munduko 86 unibertsitateetara bidalitako informazioa

Arabako Iruña Argitzeko Batzordeak Arabako Foru Aldundiak eta EHUk gai honetan izan duten jokaera desegokiaren laburpena arkeologia fakultatea duten munduko 86 unibertsitateetara bidali du: Horietatik 6 Afrikako unibertsitateetara bidali dira, 14 Asiara, 2 Australiara, 45 Europara, 8 Hegoamerika eta Ertamerikara eta 11 Iparramerikara. Horrez gain, gutun hau beratu Euskal Herriko beste erakunde eta unibertsitateetara bidali dugu.

Laburpenean, informazio guztia izateko, lotura interesgarriak jarri dira bertan: ostrakak faltsuak direla dioten 7 txostenak, egiazkoak direla esaten duten beste 19 txostenak (azkena Txillardegiren 3 gutunak), Julio Nuñezen hondeamakinak egindako suntsiketa programatua islatzen duena, etab.

Ondarea isurtegi zuzenean eramaten duen herri honetan gertatzen denaz jakitun izan daitezen!

Euskaraz:

<http://euskararenjatorria.net/wp-content/uploads/2012/04/Suntsiketa-arkeologikoa-Arabako-lru%C3%B1an1.pdf>

En castellano:

<http://euskararenjatorria.net/wp-content/uploads/2012/04/Destrucci%C3%B3n-arqueologica-de-lru%C3%B1a-Veleia1.pdf>

In English:

<http://euskararenjatorria.net/wp-content/uploads/2012/04/Destruction-of-the-lru%C3%B1aVeleia-archaeology-site1.pdf>

3.-Arkeometria: Kantabriako kobak eta Erromako “otsemea”

EHUn ez dago arkeometria sailik, hau da, hondakin arkeologikoak datatzen dituen zientzia arlorik. Baina hori ez zen 2008an Eliseo Giel egin zuen eskaerari uko egiteko arrazoia izan behar. Eliseok 100 ostraka polemikoenak atzerriko laborategietara eramatea proposatu zuen, modu zientifiko batez egiazkoak ala faltsuak diren argitzeko. Geroztik ere eskaera hau ukatu izan da behin eta berriz.

Zientziaren kontrako jarrera hau ez da Europako beste lekuetan ikusten, ezta Estatuan ere ez. Adibidez, ekainean arkeometriarekin zerikusia duten bi albiste garrantzitsu agertu dira: Kantabria eta Asturiasko kobetako labar margoen datazioak, bere arloko margo lanik zaharrenak bihurtu direnak eta Erromako fundazioaren ikurra den “otseme kapitalinoa” izeneko eskulturaren datazioa.

Datazio bi hauek erakutsi dute, hamaikagarren aldiz, arkeometria gai dela zehaztasun osoz pieza arkeologiko bat noizkoa den jakiteko. Ez dugu ulertzen, eta are gutxiago onartzen, Arabako ostraka famatuetan gauza bera egin nahi ez izatea.



Arkeometria teknikariek Erromako otsemea datatu dute Italian